

Doughnutaren ekonomia

Doughnut esanda, Simpson zaleek Homer edo Wiggum polizia ikusiko dituzte erroskillak irensten. Telesail eta film estatubatuarretan oso errepikakorra da *donutsa*, alferkeria eta sabel borobilduaren irudia.

Kate Raworth ekonomialariak irudi honekin apurtu du ustekabea. Beraiaz, ekonomia neoliberalaren irudi klasikoa irauli du: etengabeko Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundera irudikatzen duen goranzko grafikoa borobildu egin du, donuts itxura emanez. Oxford Unibertsitatean irakasle da Raworth eta bere *Donutsaren ekonomia* teoriak hautsak harrotu ditu.

Txalogarria iruditzen zait akademiaren mundutik, hain teoria aparta sortu izana helburu xume baina ezinbesteko batekin: nola azaldu fakultateko gazteei XXI. mendean ekonomia nola ikusi eta ikasi behar den? Nola eman zentraltasuna, ohiko teoria ekonomiko klasiko, liberal eta neoliberalak marjinetara zokoratzen dituzten aferei?

Ez dira izan lobby enpresarialek, ez elite ekonomikoaren interesek, ezta aldizkari zientifikoetan argitaratzeko grinak ere teoria hori marraztera bideratu dutenak. Bere kezka pertsonalek eta bizitzako bideek eraman dute horretara: Zanzibarreko emakume ekintzaileekin lanean ibili da urteetan, Nazio Batuen Erakundean aritua da *Giza garapena* txostenaz arduratzen den lantaldean eta *Intermon Oxfam*-en ikertzaile izan da. Jendartearen bizitzeko funtsezko beharrek kezkatzen dute, emakumeen, pobretuen eta zapalduen arazoez eta lurraren kolapsoaz arduratzen da. Askotan du ekonomia feminista, ekologismo, eta bestelako teoria erradikaletatik.

Bi zirkulu zentrukidek osatzen dute *Donutsaren ekonomia*. Honela, barnealdeko zirkuluak esparru soziala



Aiala Elorrieta Agirre

EKONOMIALARIA

@aialuski

Txalogarria iruditzen zait akademiaren mundutik, hain teoria aparta sortu izana helburu xume baina ezinbesteko batekin: nola azaldu fakultateko gazteei XXI. mendean ekonomia nola ikusi eta ikasi behar den? Nola eman zentraltasuna, ohiko teoria ekonomiko klasiko, liberal eta neoliberalak marjinetara zokoratzen dituzten aferei?

irudikatzen du eta bertan jendarteak bizitzeko funtsezkoenak dituen beharrianak taldekatzen dira: osasuna, etxebizitza, elikadura, ekitatea, justizia... Bitartean, kanpoaldeko zirkuluak ingurumenaren beharrak jasotzen ditu. Horretarako planetaren bederatzi muga nabarmentzen ditu: aldaketa kli-

matikoa, lurren erabilpena, bioaniztasunaren galera eta kutsadura kimikoa, batzuk aipatzearen.

Irudia multidimentsionala izateaz gain, oso dinamikoa ere bada. Izan ere, herrialde jakin baten ekonomiak une jakin batean duen "osasun" egoeraren erradiografia egiten du. Esate baterako, aldaketa klimatikoaren espazioa kolore ilunagoz tindatuta marrazteak muga hori sobera gaingitzen ari garela erakusten du. Edota esparru sozialean, berdintasunaren espazioa zenbat eta ilunago tindatuago egoteak, desberdintasun sozial jasanezinak dituen ekonomia irudikatzen dute. Ekonomiaren ongizateari argazkia egitearekin bat, alarmak pizten ditu ekonomia jakin horrek eragiten dituen gehiegikeriak salatuz.

Raworthen teoriak teoria ekonomiko hegemonikoaren zutabeak eraitsi egiten ditu. Amaitu beharra dago BPGaren hazkunde mugagabea helburutzat izatearekin. Usu, teoria ekonomikoak hazkunde *jasangarria* deitu izan duenak, zerikusi gutxi izan du planetaren mugekin: denboran irauten duen etengabeko hazkundera baizik. Hitz gutxitan, ingurumenaren mugak eta jendartearen beharrak kontuan hartzen dituen ekonomia irudikatu du Kate Raworthek.

Trebakuntza saio bat prestatzen ari nintzela, deskubritu nuen Raworth eta aurkikuntzak erabat sorginduta utzi ninduen: errealitateetik eta errealitatearentzat sortuta dagoen teoria dela esango nuke. Errealitatearen beharretatik abiatuta, ikasleentzat diseinatuta. Kasualitate hutsez topatu nuela pentsatu nuen hasieran, baina berez, inkontzienteki bilatu egin nuen galdera bati erantzun nahian: nola azaldu daiteke ekonomia era tentagarri eta errealago batean? ■